



## ARRAIN BATEN ISTORIA

Ingalaterrara etorri naiz bizitzera eta triste nago. Hemen ez dut inor ezagutzen eta gainera euria ari du etengabe. Ni, nire arrainari begira nago. Amonak oparitu zidan etorri baino lehen eta nahiko arrain aspergarria iruditzen zait. Ez du ezer egiten, burubuilak bota besterik ez. Bat batean arrainak hitz egin du eta hórrela galdetu dit:

-Zergaitik aurpegi goibel hori Ane?

-Hitz egiten duzu! – esan diot harrituta-.

-Jakina hitz egiten dudala. Harrapatu nindutenetik hona, jendeari entzun diot eta hizkuntza ikasi dut.

-Baina nola liteke arrain batek hitz egitea? – galdetu diot-.

- Hitz egitea baino lorpen handiagoak egin ditut nik ... . Adibidez Ozeano Atlantikoa zeharkatu nuen nire taldearekin batera. – esan dit arrainak harro.

- Zu bezalako arrain ziztrin batek ezin du hori egin. Zihur oso bizitza aspergarria pasa zenuela itsasoan – erantzun diot nik-.

- Oker zaude, baina hórrela tratatzen banauzu ez dizut ezer kontatuko.

- Ados, itsasoko abenturak kontatzen badizkidazu izen bat jarriko dizut. Mmmmm.... badakit! Hain mugitua eta energiaduna zarenez, zer iruditzen Pila?

- Pila... gustatzen zait. Ados, nire istorioa kontatuko dizut. Alaska ondoko itsas bazter batean jaio nintzen, arrocketako zulo batean, nire anai-arrebekin batera. Oso ondo bizi nintzen, nire gurasoek jana ekartzen zidaten eta nahiko bizileku erosoa zen. Egun batean gurasoek Europa aldera bidaiatzeko ordua zela esan ziguten. Hasieran bidaiari oso nekagarria iruditu zitzaidan, izan ere ordura arte ez nintzen inoiz kobazulotik aldentzen, baina ohitzen joan nintzen. Egun batean nahiko sakonean genbintzala arrain abisal batek eraso egin zigun, aitak berarekin borrokan egin zuen eta hil egin zen, baina guk ihes egitea lortu genuen. – Nik oso adi entzuten nion arraintxo txikiari eta bere aitak pena ematen zidan. – Bidaiak Aurrera egin ahala hazten ari nintzen eta baita nire anai-arrebak era. Nire amak gidatutako taldeak Aurrera jarraitzen zuen. Behin, gure espezieko beste talde batekin topo egin genuen. Lagun asko egin nituen, baina berandu baino lehen agurtzeko garaia heldu zen eta bidaiari jarraitu genion. Bidaiari amaiezina egin zitzaidan. Egun batean itsasontzi bat aurkitu genuen bidean, eta konturatu gabe bere sareetan harrapatuta geratu ginen. Itsasontzira igo gintuzten eta nire senide guztiak hil ziren ur faltagatik. Nik bizirik iraun nuen, langile batek, ni hartu eta arrain-ontzi batean sartu ninduelako. Berarekin bizi izan nintzen lau astez eta ondoren zure amonari ni oparitzeko ideia etorri zitzaion burura.

- Jakina! Nire amonaren maitale berria arrantzalea da! Nire aitona hilda dago eta orain amonak maitale berria du. – azaldu nion Pilari -. Eskerrik asko, argi geratu zait bizitza zirraragarria izan duzula, Pila.

- Ea ba, oraindik ez diozu lehenengo galderari erantzun, Ane, zergaitik zaude triste?

- Ingalaterrara etorri naizelako bizitzera eta ez dudalako lagunik. Gainera euria ari du etengabe – esan dut aurpegia goibelduta-.

- Ez baduzu lagunik zuk nahi ez duzulako izango da, oso neska jatorra zarela iruditzen zait, Ane.

- Eskerrik asko Pila, baina ez dut kalera irten nahi, euria ari du...

- Euria, euria... niri ikaragarri gustatzen zait. Nire bidaiari zehar asko gustatzen zitzaidan itsasoko gainazalean tantak erortzen azpiltik ikustea. Benetan zoragarria zen – esan su Pilak irribarrez-.

- Konbentzitu egin nauzu Pila, kalera irtengo naiz. Nahi duzu zu ere eramatea?

- Ados, ane, baina euritakoarekin estali, besteal arrain-ontziko urak gainezka egingo du. – erantzun dit Pilak-.

- Pila... eskerrik asko!

- Zergaitik, Ane?

- Zure istorioa kontatzeagatik. Zuri entzunda adorea bildu dut eta irrikan nago lagun ingeles berriak ezagutzeko.

- Ez da ezer, Ane – esan du, eta arrain-ontzia besapean eta euritakoa beste eskuan dudala, buelta bat ematera atera naiz nire lagun berriarekin batera. Orduan atertu egin du, euritakoa tolestu dut eta Pilari begiratu diot–

- Euri egunak gustatzen zaizkit, bai baina are gehiago gustuko dut ur azpitik eguzkia ikustea-.

Eta ala bazan edo ez bazan sar dadila kalabazan eta atera dadila Mendaroko plazan.

